

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Esparza kontseilariak Komunitate Gaietarako Nekazaritza Politikako Aholkularitza Kontseiluan parte hartu du

Aurrez, José Javier Esparza Arias Cañete ministroarekin bildu da

Lunes, 09 de julio de 2012

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparzak Komunitate Gaietarako Nekazaritza Politikako Aholkularitza Kontseiluan parte hartu du eta baita Nekazaritza eta Landa Garapeneko Konferentzia Sektorialean ere. Biak ala biak gaur goizean egin dira Madrilan Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen ministro Miguel Arias Cañeteren lehendakaritzaren pean.

Aurrez, Esparza kontseilariak laneko bilera izan du Arias Cañete ministroarekin eta, besteak beste, Nekazaritza Politika Bateratuko erreformaren egoera eta ikuspegiak aztertu dituzte. Gogoratu behar da Nafarroak seihileko honetan Espainiako Autonomia Erkidegoen ordezkaritza hartzen duela Europar Batasuneko Nekazaritza eta Arrantza Ministroen Kontseiluan, etorkizuneko NPBa eztabaidatu eta diseinatzeko funtsezko aldi batean.

Hain zuzen ere, gaur egin den Aholkularitza Kontseiluaren bilerak uztailaren 16an Bruselan egingo den Europako Ministroen Kontseiluaren hurrengo bilera prestatzeko balio izan du; bertan izango da Javier Esparza kontseilaria, Arias Cañete ministroarekin batera. Kontseilu horretan aztertuko dira: Zipreko lehendakaritzaren lan-programa, garapenari laguntza emateari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Araudiaren Proposamena Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren bidez (LGENF), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Araudiaren proposamena, nekazaritza-produktuen Merkatuen



Esparza aholkularia (ezkerrean) eta Arias Cañete ministroa (lehen planoan).

Antolakuntza Bateratua eratzen duena.

Landa Garapeneko Araudiari dagokionez, Aholkularitza Kontseiluaren gaurko bileran izaera nazionalako Landa Garapeneko Programa (LGP) bat izatea edo ez komeni den, horren gainean eztabaidatu da; horri esker, bertan Autonomia Erkidego bati baino gehiagori eragingo dien neurriak sartu ahal izango dira, beste era batera Europako funtsen laguntzarik izango ez zutenak. Gai horrek garrantzi berezia du Foru Komunitatearentzat, Espainiako bigarren mailako kooperatiba handienetako bat baitugu eta sozio diren kooperatibak dituztenak zenbait Autonomia Erkidegotan. Arrazoi hori dela eta, Nafarroak Ministerioaren proposa babestu du, hau da, eskualdeko LGP bat eta LG nazional bat izatea nekazaritza-mundurako funtsezko neurriak sustatzeko, eta, beste era batean, finantzaketa gabe geldituko lirateke.



Kontseiluko mahaiaren ikuspegi orokorra.

Bestalde, merkatuen nahaste-egoeretarako aparteko neurriak jasotzen dituen Merkatuen Antolaketa Bateratuaren Araudiari dagokionez, Nafarroak Ministerioaren proposamenari babes eman dio neurri horiek nekazaritza eta abeltzaintzako produktu guztiak, salbuespenik gabe, estal ditzan.

Konferentzia Sektoriala

Nekazaritza eta Landa Garapeneko Konferentzia Sektorialari dagokionez, Ministerioaren proposamenaren berri eman da Nekazaritzako Elikagaien Laborategiak Koordinatzeko Mahai bat sor dadin, eta Nafarroak haren aldeko balorazioa egin du.

Halaber, Ministerioak 2012. ekitaldirako basoko suteak prebenitu eta borroka egiteko Ekintza Plana aurkeztu du eta, era zehatz batean, barnean hartzen dituen baliabide materialak eta giza baliabideak. Horri dagokionez, eztabaida sortu da biomasa-proiektuen bidez mendien garbiketaren inguruan, eta suteak prebenitzen laguntzeaz gain, enplegua eta energia garbia sortzen dute. Ministroak eredu hori defendatzeko konpromisoa hartu du, eta Nafarroak jarrera hori txalotu egin du.

Mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko komunitateko funtsak banatzeko irizpideak izan da Nekazaritza eta Landa Garapeneko Konferentzia Sektorialean Ministerioak Autonomia Erkidegoetako kontseilariari aurkeztutako beste gai bat. José Javier Esparza kontseilariaren aburuz, ekoizpenen kalitatea hobetzea eta merkatuko eskaerara bideratzea xede duen neurri hori, funtsezko tresna da Nafarroako mahasti-ardo sektorea garatzeko.

Azkenik, Ministerioak esnea sustatzeko kanpaina berezi bat garatzea planteatu du 2012ko irailetik abendura bitarte, eta José Javier Esparza kontseilariak Nafarroak kanpainarekin bat egiteko asmoa azaldu du.